



Arartekoaren 2020R-1941-2018 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 7koa. Horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio Lanbidek ezarri ditzala administrazio prozedurari buruzko araubidean aurreikusita dauden jakinarazpen bermeak hautaketa prozesuetan parte ez hartzearen edo enplegu bati uko egitearren diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea amaitu aurretik, eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrei ematen zaien informazioarekin lotutako bestelako hobekuntzak egin ditzala.

-

Aurrekariak

1. Arartekoak jarduketa bat hasi zuen ofizioz 2018ko urriaren 22an, **diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) iraungitzeko prozeduraren inguruan, zehazki, eskubide horiek lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesuetan parte-hartzea onartu ez delako edo Lanbidek telefono bidez helarazitako lan-eskaintza bati uko egin zaiolako iraungitzen denean;** hori guztia, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 49. artikulua kontuan hartuta, bertan arautzen baitira prestazioak jasotzeko eskubidea amaitzeko arrazoiak.

Jasotako keak aztertuz, ondorioztatu genuen, gure ustez, honako gabeziak daudela prestazioak amaitzeko prozeduran:

- Alde batetik, telefono bidez egindako elkarrizketaren edukia ez da erregistratzen, hortaz, ez da egiaztatzen galdetutako pertsonaren nahia ezta diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra izateagatik dagozkion betebeharrak bete ez izana.
 - Bestalde, erabiltzaileek batzuetan ez dute izaten nahikoa hizkuntza gaitasunik ematen zaien informazioaren esanahiaz jabetzeko, ezta beren erantzunek izango duten eragina edo diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarrian prestazioetarako eskubide subjektiboan sortuko diren ondorioak ulertzeko ere. Kontuan izan behar da Lanbideren erabiltzaile asko gure herrialdera duela gutxi etorritako atzerritarrak direla eta/edo alfabetatze prozesuan daudela.
 - Azkenik, telefono-deia Lanbide enpresa laguntzaileak eskaturik egiten da, batzuetan, telefono mugikor batera, hortaz, hartzailea dagoen tokiaren arabera, komunikazioa desegokia izan daiteke edo kanpoko distortsioak egon daitezke, hartzailearen erantzuna edo nahia adieraztea baldintzatu dezaketenak. Horren ondorioz, jakinarazpena behar bezala egiten ez denez, zalantzan jar daiteke egintzaren eraginkortasuna.
2. Era berean, eta horrekin lotura zuzena duelarik, Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi dio Lanbideri diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako





prestazio osagarriaren titular askorentzat zaila dela ulertzea, indarrean dagoen araudiarekin bat eginez, zein baldintza eta betebeharrak bete behar dituzten prestazio biak jasotzeko eta jasotzen jarraitzeko; eta bestalde, indarrean dagoen araudiari dagokionez, 2017ko maiatzean egokitutako *"Lanbideren Irizpideen Dokumentuan"*¹ egiten den interpretazioak ere zailtasunak sortzen ditu, erakunde publikoak hartzaileek betekizunak eta betebeharrak betetzen dituztela erabaki behar duenean. Hori guztia, nahiz eta gaur egun, jasotzaileei irizpideen aginduan jasotako informazioaren zati bat (64-66.orri.) ematen zaien, eta horrez gain, adierazi egiten zaie hori sinatu behar dutela diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubide subjektiboa aintzateste eskariarekin batera *"Dokumentu horren bidez eskubideak egikaritzearen betebeharraren berri ematen da"*.

Ondorio horietarako, Arartekoak egiaztatu du dokumentu horren esanahia, eragina eta ondorioak ulertzeak zailtasun ugari sortzen dituela, batzuetan, prestazioen jasotzaileak, gizarte bazterketan dauden, bi hizkuntza koofizialeko bat ere ez dakiten edo prestakuntza gabeziak dituzten pertsonak direlako. Horregatik, erakunde honek hainbatetan azpimarratu du **garrantzitsua dela pertsona horiek beharrezko prestakuntza jasotzea** prestazioak jasotzeko eskubidea aintzateste eta mantentzeko egin beharreko jarduketari buruz, halaxe azaldu genuelarik *Arartekoaren txosten-diagnostikoa, Lanbideko diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017.*² agirian (aurrerantzean, 2017ko txosten-diagnostikoa), 3. gomendioan: *"Beharrezkotzat jotzen da herritarrei emandako arretaren eta informazioaren kalitatea behar beste hobetzea, prestazioen titular gisa dituzten betebeharrak ezagutzeko, baita horiek ez betetzeak dakartzan ondorioak ere"*.

3. 2017ko txosten-diagnostiko horretan dagoeneko aipatu ziren prestazioaren jasotzaileek hautaketa prozesuetan parte ez hartzeagatik diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea amaitzearen ondoriozko arazoak. Horrez gain, izapidetu genituen zenbait kexa espediente aipatu genituen, guztiek ere **akatsak izan zituztelarik jakinarazpenetan**. Arartekoak, aurreko analisia bidali zuen baita ere *Arartekoaren Ebazpena, 2016ko abuztuaren 23koa*.³

Izan ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren araudiak ezartzen du prestazioen hartzaileak enplegu egoki bati edo enpleguaren baldintzak hobetzeari uko egitea prestazioa iraungitzeko arrazoietakoa bat dela (horren ondorioz, urtebetez ezin da prestazioa berriz eskatu, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3 artikulua)

¹ Eskuragarri hemen:

https://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_criterios/eu_def/adjuntos/Irizpideak_DBE%20maiatza%202017.pdf

² Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf

³ Hemen eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4013_1.pdf



arabera). **Hala ere, Arartekoaren ustez, lege xedapen hori aplikatzen ari den moduak ez ditu behar beste berme ematen.**

Zehazki, Arartekoak izapidetu dituen lehenago aipatutako kexetan, ez zegoen jasota hautaketa prozesu batean parte hartzeko eskaintza baten berri ematea.

Gainera, hautaketa prozesuan parte hartzeko jakinarazpena ez zuen Lanbidek egiten, prozesurako deialdia egiten zuen enpresa laguntzaileak baizik, eta gainera, telefono bidez egiten zuen. Ezagutu ditugun kasuetan behintzat, espedientean jasota dagoen bakarra da dei hori egin zela, komunikazioa egin izana, alegia. Hala ere, ez zegoen idatzizko jakinarazpen formalik; beraz, ez zen jaso erakunde laguntzaileak eskaintzaren inguruko jakinarazpenaren edukia jaso zuenik, prestazioaren hartzaileak horri uko egin zionik, ezta egoera horren arrazoiak edo justifikazioak.

Gure iritziz, jakinarazpen hori diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren espedientea osatzen duen administrazio egintzat bat jo behar da, horren ondorioz sortu baitaiteke eskubide subjektibo bat (diru-sarrerak bermatzeko errenta, esaterako) amaitzea. Horregatik, nola egiten den ikusita, ez ditu betetzen [Herri administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea](#)⁴ agiriaren 40-46. artikuluetan xedatutakoak, bertan zehazten baita espedientean jaso behar direla, araubidean ezarritako baldintzak betez.

Arartekoaren iritziz, jokabide horrek defentsa gabezia egoerak sortzen dizkie administratuei, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa iraungitzea erabakitzen duelako eta prestazioa urtebetez berriz eskatu ezin delako; hori guztia, kontuan hartuta eskubide subjektiboa dela, gizarte bazterketan dauden pertsonen oinarrizko beharrak betetzeko prestazio ekonomikoak ziurtatzekoa, batez ere, bizikidetzaren unitateak adingabeak kargura dituenen eta adingabeen interes handienaren printzipioa modu sistematikoan aplikatzen ez denean.

Hori guztia aintzat hartuta, lehen aipatutako Arartekoaren 2017ko txosten-diagnostikoan (40. eta 41. gomendioak), erakunde honek proposatu zuen espedientean jaso behar zirela egindako jakinarazpen formala eta, hala badagokio, enpleguari uko egiteko edo hautapen prozesuan parte ez hartzeko arrazoiak. Erakunde honek ere aipatu zuen, Lanbidek oraingo prozeduran honako elementu hauek sartu beharko lituzkeela defentsa gabezia egoerarik sor ez dadin:

- Hautapen-prozesuen inguruko informazioa, hala badagokio, eta lan-
eskaintzaren edukien eta eskaintzen diren lan-baldintzen inguruko
informazioa.
- Hautapen-prozesuan ez parte hartzeak edo enplegua ukatzeak diru-sarrerak
bermatzeko errentaren prestazioaren eskubidean dituen ondorioen inguruko
informazioa, horretarako justifikatutako arrazoirik ez badago.

⁴ Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2015-10565>



- Aurretik aipatutako informazioa espedientean jasota egon beharko litzateke, baita, hala badagokio, jakinarazpen formalei dagokienez aurreikusitako lege-araubidea betez egindako jakinarazpen-saiakerak ere. Horrez gain, enplegua ukatzeko edo hautapen-prozesuan parte hartzea ukatzeko arrazoiak jaso beharko dira.

Arartekoak, analisiaren azkeneko zatian, honako gomendioak eman zituen:

*40. Lanbidek modu bermatzaile batean jakinaraztea hautapen-prozesua, lan-
eskaintzaren edukia eta eskaintzen diren lan-baldintzak. Horrez gain, ukatzeko
justifikatutako arrazoirik ez badago, hautapen-prozesuan ez parte hartzeak edo
enplegua ukatzeak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko
eskubidean izan ditzakeen ondorioak jakinarazi beharko ditu.*

*41. Espedientean islatzea jasotako informazioa eta egindako jakinarazteko
saiakerak, baita enplegua ukatzeko edo hautapen-prozesuan ez parte hartzeko
arrazoiak ere*

4. Aurretik azaldutako guztia gorabehera, Arartekoan arrazoitutako kexak jasotzen jarraitu dugu hautaketa prozedura batean parte ez hartzearen edo enplegu bati uko egitearren diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubidea amaitzeagatik, eta beraz, egiaztatu dugu, aurretik egindako gomendioak ez direla aplikatzen. Horregatik, **2018ko urrian jarduketa bat egin genuen ofizioz, 2017ko txosten diagnostikoaren 40. eta 41. gomendioak betetzen zirenari buruzko jarraipena egiteko.**

Arartekoak Lanbidera bidali zituen gogoeta horiek, eta informazio gehiago eskatu zuen kontu hauei zegokienez:

- a) Lanbidek baldintza bat betetzen ez dela egiaztatzeke eta, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen 28.i) artikulua (azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazketan) aplikatuta, eskubidea iraungitzea erabakitzeke jarraitzen duen prozeduraren izapide guztien azalpena.
- b) Idazki honetan adierazitako gogoeten inguruan duzun iritzia.
- c) Ea badagoen neurriak hartzeko asmorik, lehen aipatutako Arartekoaren 40. eta 41. gomendioak betetze aldera.
- d) Zure iritzia honako gai honi buruz: atzerritar jatorri eta/edo etorkiko pertsona batzuek hizkuntza ulertzeko eta informazioa interpretatzeko dituzten zailtasunak, gaur egun jarraitzen den prozeduran; zailtasun horiek arintze aldera, ea aurreikusten den neurririk interpreteak jartzeko edo protokoloa hobetzeko.
- e) Ea kontuan hartzen den bizikidetzaren unitatean adingabeak egotea.
- f) Idazki honek hizpide duen gaiaren ikuspuntutik interesgarria izan daitekeen beste edozein informazio..





Informazio eskari horrek ez zuen erantzunik jaso beharrezko denboran eta moduan, eta berriz ere eskatu genuen 2019ko urtarrilaren 7an, orduan ere erantzunik ez genuelarik jaso. Gainera, Lanbideko eta Arartekoko langileek egindako bileretan gogorarazi genuen Lanbidek oraindik ere ez zuela erantzun. 2020ko otsailaren 6an, ebazpen hau eman aurretik, informazioa eskatu genuen berriz ere, eta berriz ere, Lanbidek ez zuen erantzun.

Gogoetak

1. Lanbidek 2018an ofizioz egindako informazio eskaera, 2019ko eskakizuna eta 2020ko eskariak ez erantzuteari dagokionez, bereziki azpimarratu behar dugu Lanbidek lankidetzan aritzeko betebeharra duela, [3/1985 Legea](#), [otsailaren 27koa](#), [Ararteko erakundea sortu eta arautzeari buruzkoa](#).⁵ agiriaren 23. artikuluan jasota dagoen moduan. "Laguntzeko betebeharra".

"9.1 Atalean esandako Erakundeetako Ihardutze-sailak, eskatu dakizkien xehapen, agiri, argipide edo garbitasun guztiak lehentasunez eta presaz ematea behartuta daude."

Eta baita 24. artikulua aplikatuz ere. "Kudeaketa oztopatzea":

1. Ezein herrilari, agintari, enpresa baimendun bateko edo ardularitzaren nolabaiteko zaingo edo babespeko bateko ezein lanari edo arduradunek eskatutakoa bidaltzeari uko egitea edo zabarkeriaz aritzea, eta bai ARARTEKOari eskatutako zehaztapidetzak edo ardularitza-agiriak eskuratzeko edo idazguetara sartzeko bideak ixtea edo zailtzea ere, horren lanarekiko oztopotaat joko da. ARARTEKOak, jokabide horren berri aginte-mailazko gainekoari jakinaraziko dio.

2. Herri-Ardularitzaren zerbitzurako ezein ihardutze-sail, herrilari, artezkari edo norbanakok ARARTEKOaren argipideketa-lanen aurkako edo hoiei oztopoak jartzeko jarreran irautea, bere urteroko txostenaren horretazko zatian nabarmenarazteaz gainera, berarizko argipidetxosten baten gai izan daiteke

Era berean, Herriaren erakunde Defendatzailearen babes eta sustapen printzipioak azaldu behar ditugu (Veneziako printzipioak), Arartekoak arautzen duen EAEko Legearen edukiak berresten dituztenak. Demokraziarako Europar Batzordeak, Europako Kontseiluaren Zuzenbidearen bitartez (Veneziako Batzordea) 118\ osoko bilkuran (Venezia, 2019ko martxoak 15 eta 16) printzipio batzuk ezarri zituen, besteak beste hauek:

"1.Las Instituciones del Defensor del Pueblo tienen un papel importante que desempeñar en el fortalecimiento de la democracia, el Estado de Derecho, la

⁵ Eskuragarri hemen: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4335_1.pdf



buena administración y la protección y promoción de los derechos humanos, y las libertades fundamentales (...).

16. “El Defensor del Pueblo tendrá la facultad, por iniciativa propia o a raíz de una queja, de investigar los casos, teniendo debidamente en cuenta los recursos administrativos disponibles. El Defensor del Pueblo tendrá derecho a solicitar la cooperación de cualquier persona u organización que pueda ayudar en sus investigaciones. El Defensor del Pueblo tendrá el derecho legalmente exigible de acceso ilimitado a todos los documentos, bases de datos y materiales relevantes, incluidos los que de otro modo podrían estar legalmente protegidos o ser confidenciales. Esto incluye el derecho a un acceso sin trabas a edificios, instituciones y personas, incluyendo las personas privadas de libertad. El Defensor del Pueblo tendrá la facultad de entrevistar o solicitar explicaciones por escrito a funcionarios y autoridades y, además, prestará especial atención y protección a los denunciantes dentro del sector público”.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak ofizioz jarduketa hori hasi zuenetik bi urte eta erdi baino gehiago igaro ondoren, eta Enplegu eta Gizarte Politika Sailari behin baino gehiagotan lankidetzan aritzeko eskatu ondoren hainbat bitartekoren bidez, Arartekoak, ebazpen hau sortzea erabaki du, eta aurretiaz, Arartekoa sortzen duen legean ezarritako funtzioak gogorazi ditugu, zehazki, jarduketa bat ofizioz hasteari buruzkoak (17.1. art.) eta Arartekoaren lehentasunezko funtzioa zehazten dutenak: herritarrei babesa eskaintzea agintaritza eta botere gehiegikerien aurrean eta EAEko administrazio publikoaren ez egiteen aurrean (1. art.).

2. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40.1. artikuluekin bat eginez, jakinarazi beharreko administrazio ekimenei eta jakinarazpen horren ondorioei buruz hauxe dago zehaztuta: *“1. Administrazio-ebazpenak eta -egintzak ematen dituen organoak haien berri jakinaraziko die beren eskubide eta interesak ukitzen dizkien interesdunei, ondorengo artikuluetan aurreikusitako moduan.”*

Konstituzio Auzitegiaren⁶ doktrinaren arabera, jakinarazpen egintzek hartzaileei egintza edo ebazpenaren berri emateko eginkizuna dute, pertsona horiek bere eskubide eta interesak babesteko komenigarritzat jotzen duten moduan jokatu ahal izateko; hori dela eta, funtsezko elementua dira zaintza judizial eraginkorraren ikuspuntutik (EKren 24.1 artikulua).⁷

Arartekoaren iritziz, hautaketa-prozesu batean parte hartzeko edo lan-eskaintza bat onartzeko proposamena egitea, berez, baita horren ondorioak ere, egintza kalifikatuak dira, eskubide subjektiboa azkentzeko arrazoia izan daitezkeelako; beraz, baditu ondorio juridikoak pertsonen eskubide eta interesen esparruan.

⁶“1.- Pertsona guztiek dute epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko eskubidea, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu gabe”.

⁷ Urriaren 5eko 155/1989 KAE, 2. OJ; martxoaren 16ko 59/1998 KAE, 3. OJ; abenduaren 15eko 221/2003 KAE, 4.OJ; martxoaren 24ko 55/2003 KAE, 2.OJ.

Hala, modu ez-zuzenean prozeduraren emaitza erabakitzen duen egintza bat da, egiten den moduaren arabera, defentsa gabezia sortu dezakeena (eta hori ordenamendu juridikoak debekatu egin du, EKren 24. artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta). Defentsa gabezia hori areagotu egin daiteke prestazioak eskatzen dituen pertsonaren edo prestazioen titularraren egoeraren arabera. Kasu askotan, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak dira, zaurgarriak, eta askotan, ez dituzte Euskadiko hizkuntza koofizialak menperatzen.

Daukagun informazioaren arabera, oraindik ere funtsezko alderdiak ez daude administrazio-espeditentean jasota, hala nola: ea hautaketa-prozesuan parte hartzeko edo lan-eskaintza onartzeko proposamena egiteko egin zen telefono-deian, dei hori egin zuen pertsonaren eta erakundearen izenak azaldu ziren ala ez (Lanbide edo azpikontrataturako beste enpresa bat); ea dei hori funtzionario batek egin zuen, hau da, egiazkotasun ustea duen pertsona batek, ala beste enpresako pertsona azpikontratu batek; elkarrizketaren edukia; hartzaileak adierazitako nahia; ea ohartarazi zitzaion prestazioaren onuradunari dei hori grabatuko zela edo ez zela, eta ea jakinarazi zitzaizkion deiaren ondorioak edo hartzailearen datuak erabiliko zirela.

Ilido horretan, aipatu behar da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 70.1 artikulua administrazio espeditentea osatzen duten dokumentuak arautzen dituela, hain zuzen: *“Administrazio-espeditentea dokumentu eta jarduketan multzo ordenatu bat da, administrazio-ebazpenaren aurrekari eta oinarri izateko balio duena eta hura betearazteko eginbideak ere jasotzen dituena.”*

Artikulu bereko 2. apartatuaren arabera, *“osagarria edo lagungarria den informazioa soilik ez da sartuko espeditentean...”*.informazio lagungarria edo osagarria

Hori dela eta, ofiziozko jarduera honen hizpide diren kexa-espeditentetan Lanbideak telefono bidez komunikatutako lan-eskaintzari uko egitea kexagilearen eta bere bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerak bermatzeko errentarako edo etxebizitzarako prestazio osagarriko eskubide subjektiboa azkentzeko ebazpenaren arrazoi nagusia izaten dela kontuan hartuta, erakunde honek uste du administrazio-ebazpenaren, baita ebazpen hori betearazteko eginbideen ere, aurrekari eta oinarri gisa erabiltzen den egitatetzat jo behar dela; inola ere ez da informazio osagarria edo lagungarria.

3. Era berean, aurreko baldintzek eragindako defentsa-gabezia egoera larriago bihurtzen da prozedura horietan antzemandako gabeziei hizkuntza ulertzeko zailtasuna gehitzen bazaie; hori horrela da, kasu batzuetan bi hizkuntza koofizialeko bat ere ez dakiten atzeritarrak direlako. Horregatik, erakunde honek, era berean erakunde publikoari gogorarazi nahi dizkio [Arartekoaren gomendio orokorra, 2009ko martxokoa](#) agirian jasotako zenbait balorazio: *“Etorikinei beren eskubideez baliatzean laguntzeko, administrazioaren ardua zerbitzu publikoen hizkuntza erabilgarritasunaren bermeari dagokionez”⁸.*



Bertan, Europar Batasunaren alorrean, hauxe xedatzen zuen Batzordeak jakinarazpeneko III.6. puntuan *“Eleaniztasunerako esparru estrategia berria”* (COM (2005) 596 azkena). Horren bitartez, zuzenean lotzen dira zerbitzu publikoen hizkuntz irisgarritasuna eta etorkinek, eskubideak egikaritzean dituzten aukera errealak.

Gomendio horren hizpide nagusia itzulpen ofizialeko zerbitzu formalak eta horietan zein zerbitzu horiek betetzen dituzten pertsonengan gizarte irizpideak aintzat hartzeko beharra izan arren, sarreran azpimarratu ziren ebazpen honetan sartu nahi ditugun –interesgarriak eta egokiak direla uste dugulako– elementu batzuk, hauek:

“Zerbitzu publikoak erabiltzerakoan berdintasuna posible egiteko beharrak kultura anitzeko testuinguruan erronka bat adierazten du eta horrek, arin eta eraginkortasunez, administrazioarekin etorkinen elkarrekintzarako bidea ematen duen hizkuntza aniztasuneko interpretazioa antolatzea dakar. Esan daiteke hizkuntzen hizkuntza erabilgarritasun egokiak, integratzen saiatu nahi duen gizarte batean, hizkuntza ofizialak ez dakizkien etorkinei beren eskubideez behar bezala baliatzea baldintzatzen diela”.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendatu zion Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, garai hartan indarrean zegoen Immigrazioaren Planean ezarritako ekintzak betetze aldera, honako hauek burutzea:

“...herri-administrazioei beren zerbitzuak eskainiko dizkion interprete sarearen sorrera sustatzeko beharrezko neurriak izan ditzala, EAEko hizkuntza ofizialak ezagutzen ez dituzten etorkin erabiltzaileekin dituzten harremanetan. Aipatutako sareak interpretazio sozialaren irizpideak hartu beharko lituzke barne, ebazpen honetan jasotakoaren arabera, diseinua, burutzapena eta jarraipena eta kalitatearen kontrolari dagokionez.”

Gainera, ofiziozko jardueraren jasotzailea den sail berak erabakitako *V Plana, Kulturartekotasunaren eta immigrazioaren eremuan jarduteko 2018-2020 aldia*.⁹ agiriaren testuinguruan, zenbait neurri aurreikusi dira, enpleguari lotuta daudenak eta atzerriko jatorria eta/edo aszendentzia dutenak irisgarritasun eta lan orientabide protokolo hobeak izateari buruzkoak. Hauxe da planaren xedea: *“lehentasunezko jarduera-ildo batzuk ezartzen ditu, egungo eta geroko euskal gizarteak honako hauek izan ditzan: berdintasuna, herritarrek eskubideak izateari dagokionez; Euskadin bizi diren pertsona guztientzako aukera-berdintasunaren sustapena; gizarte-trinkotasuna, eta elkartasun handiagoa gizarte-kolektibo behartsuenekin; begirunea pertsona eta kultura guztien dibertsitatearekin; eta gizarte-interakzioaren aldeko testuinguruaren sustapena”*

⁸ Eskuragarri, hemen: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_1659_3.pdf

⁹ Hemen eskuragarri:

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_estrategicos_inmigracio/eu_planes/adjuntos/v_planinterculturalidad_eu.pdf



Arartekoaren informazioaren arabera, Lanbidek ez du interpretazio zerbitzurik gomendio orokorrean zehaztutako edukiarekin.

4. Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzarako prestazio osagarriak bukatzea eta horiek urtebetean eskatu ezin izatea neurri oso larria da, eta administrazio prozeduran aurreikusitako bermeak bete behar dira. Gainera, bereziki kaltetzen ditu adingabeak kargura dituzten familiak, eta gizarte bazterketa egoera sufritzen dute maiz. Beraz, gure ordenamendu juridikoan agertzen den adingabearen interes gorena aipatu behar da (Nazio Batuen 1989ko Konbentzioa, Haurren Eskubideei buruzkoa; uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa; urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa). Erakunde honek aztertu egin zuen printzipio horrek diru-sarrerak bermatzeko errentan eta etxebizitzarako prestazio osagarrian duen eragina. *Arartekoaren 2/2015 Gomendio orokorra, apirilaren 8koa, Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharrari buruzkoa, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman.*¹⁰

Horren guztiaren ondorioz, Arartekoaren lehen aipaturiko 2017ko txosten-diagnostikoa egin eta gero, prestazioak amaitzearen –baina ez hori bakarrik, baita jasotako prestazioak itzuli beharra eta urtebetez berriz eskatzeko ezintasuna ere– ondorioz aurkeztu zituzten hainbat kexa espediente identifikatu dira; kasu horietan, azkentzea telefono bidezko jakinarazpenak oinarri hartuta erabaki da. Lehen esan dugunez, komunikazio horiek ez dute betetzen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako baldintzak, administrazio egintzen jakinarazpenen moduari eta edukiari dagokienez.

Ziurrenik, telefono bidez jakinarazteko prozedurak, azkarragoa egiten du lan bitartekaritza. Hala ere, Arartekoaren iritziz, jakinarazpenaren azkartasuna eta berehalakotasuna bat etorri behar dira legezko xedapenekin eta administrazio prozedurak izapidetzeko bermeekin, eta ondorioz, bermatu egin behar da orekatuta daudela diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubide subjektiboa duten titularren eskubideak eta betebeharrak; prestazio ekonomiko horiek gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen oinarrizko beharrak betetzen dituzte.

Horregatik guztiagatik, eta erakunde hau sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arartekoak honako gomendio hau eman dio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

¹⁰ Webgune honetan eskuragarri:

http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3662_1.pdf





GOMENDIOA:

- Lanbidek modu bermatzaile batean jakinaraztea hautapen-prozesuan derrigorrez parte hartzearen beharra, edo lan-eskaintzaren edukia eta eskaintzen diren lan-baldintzak. Horrez gain, ukatzeko justifikatutako arrazoirik ez badago, hautapen-prozesuan ez parte hartzeak edo enplegua ukatzeak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidean izan ditzakeen ondorioak jakinarazi beharko ditu.
- Espedientean, modu frogagarrian jasotzea diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrari eta bizikidetzaren unitateko kideei bidalitako informazioa eta jakinarazpenak egiteko saiakerak, baita interesatuek enpleguari uko egiteko edo hautapen prozesuetan ez parte hartzeko alegatutako arrazoiak.
- Informazioa eta hizkuntz eskuragarritasuna hobetzea, Arartekoak 2017ko txosten-diagnostikoaren bitartez eta 2009ko martxoko *"Etorkinei beren eskubideez baliatzean laguntzeko, administrazioaren ardura zerbitzu publikoen hizkuntza erabilgarritasunaren bermeari dagokionez"* . gaiari buruzko gomendio orokorrean Enplegu eta Gizarte Politika Sailari adierazitakoak.

